

## Trafiko-istripuetan hiltzen diren gazteen tasa Euskadiko biztanleria osoan arrazoi beragatik hiltzen direnen tasaren gainerik dago

Euskadin trafiko-istripuetan hiltzen diren pertsonen % 29,4 15 eta 29 urte bitarteko gazteak dira. Horietatik % 21,9 gizonezkoak dira eta % 7,5 emakumezkoak.



Euskadin 15 eta 29 urte bitarteko 79 gazte hil dira trafiko-istripuetan, 2002ko datuen arabera. Datu horiek aditzera ematen dutenez, gazteen heriotza-tasa trafiko-istripuetan (% 18,7) altuagoa da egoera berean zendu diren Euskadiko biztanle guztien tasarekin alderatuta (% 12,9). 1997-2001 urteetan 1992-1996 epean baino 16 pertsona gehiago zendu ziren eta trafiko-istripuen ziozko heriotza-tasa % 18,3tik % 20,3ra igo zen.


### Euskadiko heriotza-tasa trafiko-istripuak direla-eta eta 15 eta 29 urte bitarteko gazteena. 1992-1996/1997-2001/2002

	1992-1996		1997-2001		2002	
Euskadi	1.359	<b>12,9</b>	1.456	<b>13,9</b>	269	<b>12,9</b>
15-29	474	<b>18,3</b>	490	<b>20,3</b>	79	<b>18,7</b>

Iturria: Osasun Saila eta bertan egina.

Azterturiko epeetan zendutako mutilen kopuruak neskenaren gainerik egoten jarraitzen du.


**Euskadiko 15 eta 29 urte bitartekoen zentzeak trafiko-istripuak direla-eta, sexuaren arabera**



Iturria: Osasun Saila eta bertan egina.

Datuak adin-taldean arabera sailkatuz gero, 2002an zendu diren gazteen gehiengoa 20 eta 24 urte bitartekoa izan da, aurreko aldietan bezala. Halaber, ikus daitekeenez, 1997-2001 epean trafiko-istripuetan zendu diren 20 eta 24 urte bitartekoen eta 25 eta 29 urte bitartekoen kopuruak gora egin du 1992-1996 epeko datuekin alderatuta eta, aldiz, 15 eta 19 urte bitartekoen kopuruak behera egin du.

**Euskadiko 15 eta 29 urte bitartekoen zentzeak trafiko-istripuak direla-eta, adin-taldean arabera. 1992-1996/1997-2001/2002**



Iturria: Osasun Saila eta bertan egina.

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoak jarraitzen du trafiko-istripuen ziozko heriotzen tasarik altuena izaten, Euskadikoa baino are altuagoa. Bizkaian tasak egonkor jarraitzen du eta Araban behera egin du aurreko epealdiarekin (1997-2001) konparatuz gero.

**Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen heriotza-tasa trafiko-istripuak direla-eta.  
1992-1996/1997-2001/2002**

	1992-1996		1997-2001		2002	
Euskadi	474	<b>18,3</b>	490	<b>20,3</b>	79	<b>18,7</b>
Araba	60	<b>17,3</b>	79	<b>23,1</b>	11	<b>18,0</b>
Bizkaia	235	<b>16,7</b>	221	<b>17,0</b>	38	<b>16,8</b>
Gipuzkoa	179	<b>21,5</b>	190	<b>24,5</b>	30	<b>22,2</b>

Iturria: Osasun Saila eta bertan egina.

**Esteka:** Gazteen Euskal Behatokiko [estatistikak](#)

Erlazionaturiko taulak:

1. Taula (pdf, 21 kb)

2. Taula (pdf, 21 kb)

3. Taula (pdf, 21 kb)